

# ...eta kitto!

781 zkia. 2011-XI-4

ASTEKARIA

TOKIKOM



A Pedalea

## Borondate sendoaren emaitza baino gehiago

# EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
preziorik onenean







**ARGITARATZAILEA:**  
 ...eta kitto! Euskara Elkartea  
**HELBIDEA:**  
 Urkizu, 11 - solairuartera  
 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:**  
 943 20 67 76 / 943 20 09 18  
**FAXA:**  
 943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**  
 erredakzioa@etakitto.com  
 komunikabideak@etakitto.com  
 publizitatea@etakitto.com  
**Elkartearen E-MAILak:**  
 elkartea@etakitto.com  
 normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu  
 Maider Aranberri  
 Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi  
 Silbia Hernandez  
 Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**  
 Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
 Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
 Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
 Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
 Leire Iturbe, E. Belar  
 eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
 Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
 Itziar Albizu  
 Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
 Jonpedalea

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
 Ainhoa Luz

**TIRADA:**  
 8.000 ale

**INPRIMATEGLIA:**  
 GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**  
 ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**  
 SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*)k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HUTS EGIN BARIK.-** Gaztelerazko 'sin falta'. "Domeka guztietan, huts egin barik, etortzen zan bazkaietara".

**HUTSAK BILDURTU.-** Edozergatik beldurtu. "Dan gizatuakin hutsak bildurtzen daben makala dozu".

**HUTSAREN HURRENGUA.-** Baliarik ez duena. "Barrena Txikiko azeliñia, hutsan hurrengua".

**HUTSIAN EMON.-** la doan eman edo saldu. "Erromerixan ardaia hutsian emoten hasi ziran".

## ESKUTITZAK

### MILA ESKER ANBULATEGIKO LANGILEEI

Lerro hauen bidez, aurreko hilaren 21ean bizi izan nuen larrialdia dela eta, eskerrak eman nahi dizkiet Eibarko Anbulategiko sendagileei, erizainei eta gainontzeko langileei, bere laguntasuna eta profesionaltasuna benetan bikaina izan zelako. Bihotzez, mila esker denoi.

Juan Mari Beraza Arratibel

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Euskal Herriko herritarrentzat interesik handiena, gutxi hala ere, duten kultura-jarduerak musika entzutea, irakurtzea eta zinemara joatea dira. Hala eta guztiz ere, krisialdi ekonomikoak ez du eraginik izan euskaldunen kultura-kontsumoari lotutako ohituretan, kultura-kontsumo ohitura ez delako apenas existitzen"


(Lorea Agirre, kazetaria)

"Erabili eta botatzekoak diren 5.000 pixoihal inguru behar dira ume bakoitzeko eta, hainbat ikerketaren arabera, 2.000 euroko gastua dakar horrek. Aipatutako 5.000 pixoihalek tona bat zabor osatzen dute eta erabilera bakarreko haur-oihalek 200 eta 400 urte artean behar dituzte erabat desagertzeko"

(Garbiñe Tolosa, kotoizko pixoihalen egilea)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## a u t u a n

### NAGUSIXENDAKO EGONALDIXAK

Udaleko Gizartekintzak adizterga emon dabenez, aurtengo abenduan pertsona nagusixendako aldi baterako egonaldixekin interesa dakenak Portalean, 4. pisuan dagan Gizartekintzaren buleguan (943708440 telefono zenbakixa) aurkeztu biharko dittue eskaeriak, honako epiak kontuan hartuta: lehelengo hamabostaldirako eskaeriak-hillebeterako egonaldixak azaruaren 18rako eskatu biharko dira eta bigarren hamabostaldixak azaruaren 28rako.

### ETXEBIZITZA ETA ERROTZE EGOKITASUN TXOSTENAK

Oiñ arte Portalean, Udaltzainguarekin alkarlanian egitten zittuen Errotze edota Etxebizitza egokitasun txostenak eguaztenaz geroztik Eusko Jaurlaritzako Inmigratio eta Aniztasunaren Kudeaketarako Zuzendaritzak egingo ditu. Eskabidiak egitteko Pegorara juan leike, dokumentaziñua eurak Eusko Jaurlaritzara bidaltzeko. Zalantzak argitzeko 943708440-ra deittu edo inmigratioa@eibar.net helbidera idatzi.



## Berrikuntzaren Astia eguaztenian abiatuko da

**EIBARKO UDALAK GAUR BERTAN PRESENTAU DAU LEHELENGOZ GURIAN OSPATUKO DAN BERRIKUNTZAREN ASTIA.** Hillaren 9xan, datorren asteko eguaztenian ekingo detse programaziñuari, Pilar Pujana ekimenaren ardurdunak azaldutakuari jarraituta: *"Barrikuntzak betidanik euki dau garrantzi haundixa gurian eta gaur egunian, krisixa dala-eta, oindiok be inportantiagua dala pentsatzen dogu. Horregaittik erabagi dogu Berrikuntzaren Astia antolatzia, hainbat jarduerarekin barrikuntzaren ingurukuak eza-gutzera emoteko".* Antolatutakuen artian lehelenguak geure iraganari begiratuko detsa eta hillaren 9tik 13ra eruango dabe aurrera: *"Jendia geure lehengo industrian barrikuntzak izandako garrantzixaz konturatzeko, eta Eibarko Museuak horren gaiñeko hamaika adibide dittuala aprobe-txauta, ate irekixen jardunaldi berezixak egingo dira egunero, eguaztenian hasi eta domekara bittartian. Museuaren ohiko ordutegixari jarraituko detsagu, astegunetan eta zapatuan 16.00etatik 20.00etara eta domekan 10.00etatik 13.00etara. Domekarako 20 lagunex osatutako taldiarendako bisita-gidatua eskinduko dogu eta interesa dakanak Museuan bertan emon biharko dau izena aurrerrik, bertara zuzenian juanda edo 943708446 telefono zenbakira deittuta".* Jardunaldixak mar-txan daguazten bittartian, bestalde, Lantegi Eskolan armagintzaren gaiñeko ikastarua egiñ eben



hiru lagun Museuan egongo dira, biharrian, jendiak ofiziuaren ingurukuak zuzenian ikusi deixan.


Barrittasunak gaur egunian betetzen daben tokixaren gaiñekuak lantzeko, barriz, ikasliekin Alfa Artera eta Teknikerrera hainbat bisitta egingo dittue: *"Ignazio Zuloaga institutuan batxiller-go artistikua ikasten diharduenekin eta Dibujo eta Zeramika Udal Eskolakuekin hillaren 16xan Alfa Artera juango gara, barrikuntzak han betetzen daben tartia ikustiaz gaiñ, artearekin bizimodua etaratzia badaguala ikusi deixen. Teknikerrera bisittak ingeniaritza eta bestelako ikasketa teknikuetan dihardueneri begira egingo dittugu, eguaztenian bertan".*

Eta datorren astekuekin lotuta, baiña aurrerago egitteko, industrialak eta formaziño profesionaleko ikasliak mahai batian batzeko asmua dake, Debegesarekin alkarlanian antolatuko daben Work Kafe batian.

## Gripiaren kontrako bakunaziñua

### ASTELEHENIAN AMAITZEKUA ZAN GRIPIAREN KONTRAKO TXERTAKETARAKO KANPAIÑIA BESTE HILLEBETEZ LUZATZIA ERABAGI DABELA

emon dabe aditzera Osakidetzako arduradunak aste honetan bertan eta, hortaz, azaruaren amaiera bittartian bakunia ipiñi nahi daben herrittarrak horretarako aukeria eukiko dabe. Urtero mar-txan ipintzen daben kanpaiñia aurten irailaren 19xan hasi zan eta, oiñ arteko datureri begiratuta, txertua ipiñi dabenen kopuruak iazkua %5ian gaintitzen dabela azaldu dabe osasun arloko arduradunak. Iazko kanpaiñian 356.000 txerto ipiñi zi-



ttuen eta aurten horrek baiño bakuna gehixago ipintzia nahi dabe, 375.000 txerto ipintzera aillegau arte. Gripiaren kontrako txertaketa kanpaiñia arrisku talde modura sailkatutako herrittarrak erakartzeko helburua dauka, hau da, 65 urtetik gorakuak, gaixotasun kronikuak dittuenak eta osasun arluan diharduen bihariñak. Gaiñera, azken taldia osatzen dabenak bakunia ipintziak dakan garrantzixa modu berezixan azpimarratu nahi izan dabe. Izan be, norbera ez kutsatzeko zein zaintzen dittuen gaixuak griperik ez hartzeko orduan bakunia oso mesedegarria izanda be, oiñ arte talde horretan daguazenen %20k baiño ez dau txertua ipiñi.

## Ezbeharrak gabonetako argixekin

**OIN DALA EGUN GITXI HASI ZIRAN GABONETARAKO ARGIXAK KALIAN IPINTZEN,** urteroko martxari jarraituta. Apaingarrixak San Andres jaixen inguruan ixotzen dittue, baiña ordurako kale guztietan bihar dan moduan ipiñitza egon deixen biharrian hasitta dagoz. Halanda be, aurreko

asteburuan susto edarra hartu eben Ibarkurutzeko al-dian, zapatu illuntzixan, 20.30xak aldera bertako etxietako baten fatxadan ipiñitako apaingarrixetako baten kablia askatu eta argixak errepidera erortzian. Zorionez ez zan ezer larririk pasau, baiña kabliak etxeko barandan kaltiak eragin zittuan.



## Ipurua kiroldegixa jai-egunetan be zabalik

**MARTITZENIAN SARTU ZAN INDARRIAN NEGUKO ORDUTEGIXA IPURUA KIROLDEGIXAN** eta, horri jarraituta, 2012ko martxuaren 25era bittartian domeketan eta jai-egunetan be instalaziñuak zabal-tzen hasiko dira, asteburu honetan bertan, goizeko ordutegixan 09.00etatik 13.00era. Bestela, astelehenetik barixakura 07.30xetatik 22.00etara zabalduko dabe eta zapatuetan 09.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 20.00etara. Unbe-ko instalaziñuak astegunetan

10.00etatik 22.00etara zabalduko dittue, zapatuetan 09.00etatik 22.00etara eta domeka eta jai-egunetan 09.00etatik 21.00etara. Eta Orbea kiroldegixa astegunetan 07.30xetatik 21.30xetara egongo da zabalik, zapatuetan 09.00etatik 14.00xetara eta 17.00etatik 20.00etara eta domeka eta jai-egunetan 09.00etatik 14.00xetara. Bestalde, Ipuruako igerilekua bixar arratsaldian itxitta egongo da, 16.00etatik 20.00etara, bertan jokatu biharreko proba bat dala-eta.



Azaruaren 19xan Eibarren jokatuiko dan rallya girotzeko ipiñi fdabe Testarossa. / EKHI BELAR

## Ferrarixa ikusgai

**EL CORTE INGLÉS-AK AZARUAREN AMAIERA BITTARTIAN IKUSGAI EUKIKO DAU FERRARI ETXEKO** Testarossa deigarrixa, nahi dabenak automobililla bertatik bertara ikusi deixan eta, nahi izanez gero, automobilillaren aldamenian erretratua etartzeko au-

keria be badago. Ferrarixa merkataritza zentruko beheko pisuaren sarreran dago, gizonetzkuen departamentuaren aldamenian. Azaruaren 19xan gurian egingo dan El Corte Inglés RallySprint lasterketarako girotzen juateko asmuarekin antolatu dabe erakusketia.

# auzorik auzo



## Zuloagatarrenoko parkia barrittuko dabe

**San Andres eliza aldameneko parkian ziburu-zaurak barrittuko dittue**, oin daguazanak kendu eta gaur egunian indarrarian daguazen seguridade neurrixak betetzen dittuen beste batzuk ipintzeko. Bide batez, eta beste parke batzuetan egindakuaren bidetik, oinguak baiño jostagarrixaguak eta erosuaguak diran beste batzuk jarriko dittue. Oin momentuan pare bat zinbili-zanbulu dagoz parkian, baiña behiñ obria amaituta oin baiño ziburu-zaura gehixago ipiñi eta umiak jolasteko tokixari tarte haundi-xagua emongo detse. Instalaziño barrixak 2 eta 10 urte bittarteko umiak jolasteko ekipauta egongo dira eta, bestiak beste, gora eta behera ibiltzeko sokak, eta txirristia, eskillarak, sokak eta hiru plataforma eukiko dittuan dorre tematikua ipiñiko dittue; horrekin batera, kulunkatzeko figuratxoren bat eta txori-kabixaren formia eukiko daben beste ziburu-zauraren bat be egongo dira. Biharrak hasi eta sei asteko epian amaitzia dake aurreikusitta eta lehiaketara 50.000 eurotan etarako dabe.


## eibar kaleka

### Otaola-Kiñarraga

Bost basarri auzuen artian haundiña eta gitxien ezagutzen dana da. Zaldibarrekin muga egitten daben lbur errekatik hasi eta Soralezarriño, Ego errekan hegoaldera daguazen lur, erreka, mendi eta basarri guztiak hartzen dittu eta hiru zatittan bereizi geinke; batian Isasittik sartalderuntz daguazen lurak dagoz eta basarri gehixenak Isasiko jauregixari eta Otaola-torriari lotuta egon dira gizaldixetan, hortik auzuari Otaola/Otola izena emotia.

**Pegora kopurua: 35**

**Erroladatutakoak: 76**



asteko

%21

datua

igo dira gurian larrialdi egoeretarako diru-laguntzetarako eskaeriak. Iaz 259 izan ziran eta aurten honezkeroko 314 jaso dittue; horretatik 31 (%9'8) atzera bota dittue. Udalak aurten 200.000 bat euro banatuko ditu programa honen bittartez.

**GIPUZKOAKO DENTISTEN KOLEGIXUAK EGUNOTAN GARATZEN DIHARDUAN AHO OSASUNAREN ASTIA-REN** barruan antolatutakuen artian, herririk herri jendiari ahua eta hortzerixia zelan dituan begiratzeko errebisiñuak musutruk eskintzen detsan autobus berezixa, Dentibus-a, Eibarrera bisittan etorri jakun astelehenian. Autobusak egun osua emon eban Txaltxa Zelaixan eta bertaraiño gerturatu ziranak errebisiñua ezer pagau barik egitteko aukeria euki eben. Gaiñera, kanpaiñiaren barruan, gure probintziako irri-farrerik polittena aukeratzeko lehiaketia dago martxan: errebisiñua egittera juandakueri zeñi inguruan dabizeneri erretratua etarutzen dihardu argazkilari batek, danen artian irrifarrerik polittena zeñiek dakan aukeratzeko. Gaiñera, erretrato baktzeko diru kopuru zihe-

## Dentibus-a bisitan euki genduan



Autobusa astelehenian egon zan gurian eta egun osua emon eban Txaltxa Zelaixan. / EKHI BELAR

tza emoten dabe Dentisten Kolegixokuak, Cáritas alkartekuak diru horrekin premiñian daguaz famelixeri laguntzeko. Erretratua etarutzen dabenak bere irrifarraren argazkixa ordenagaillura jaisteko aukeria dauka, [www.coeg.eu](http://www.coeg.eu) webgurian sartu eta horri eskindutako atalian klikatuta. Hortzerixia eta, orohar, ahua zaintziaren garrantzixaz jabetzeko, botiketari eta beste toki batzuetan be informaziñua zabaltzeko

kartelak eta bestelakuak ipiñi dittue eta eskoletan be jardura berezixak garatzen dihardue, umiak ahua osasuna zaintzen txikitatik ikasi deixen. Horretarako, Juan Antonio Mogel ikastolako umiak Hortzi izeneko maskotiaren bisittia jasoko dabe. Chalcha jatetxiak, barriz, bere bezerueri hortzak garbitzeko kit-ak oparituko detsen, kanpaiñiarekin bat egin daben beste jatetxe batzuk egin-gu daben moduan.



## Jorge Pérez Jauregi, Plaza Euskadi-n

**AURREKO ASTEKO EGUENIAN ETB-2XAN PLAZA EUSKADI SAIUAREN BIGARREN EMANALDIXA** eskindu eben eta bertan Jorge Pérez Jauregi eibartarra, 1970ian Burgosko Prozesuaren kontra Eibarren egin zan manifestaziñuan poliziari tiroz hill eban Roberto Pérez Jauregiren anaixak hartu eban parte, terrorismuaren beste biktima batzuekin batera.

Entsegu soziologiko modura planteautako dokumental sorta ETAREN agerraldixaren bixaramonian estrenau zan, "Hora 0" izenburuko erreportajiarekin eta lehelengo ataletan bakiarekin eta alkarbizitzarekin lotutako alkarte, analista eta bestelakuen iritzi eta bizenak jaso dittue. Aurreko astian emitidu eben "Encuentros" izenburukuak Axun Lasa (Jose Antonio Lasa GALEk hildako ETAko ki-diaren arrebia), Amaia Guridi (ETAk 2001ean hildako Santiago Oleaga DV-ko finantza-zuzendarixaren alarguna) eta Jorge Pérez Jauregi eibartarra alkartu zittuan eta, Maite Esparzak gidatuta, baktzak bere bizipena kontau eban. Dokumentala internet bidez ikusteko aukeria dago, Eitb-k oin dala gitxi eskintzen hasi dan Eitb Nahieran plataforma barrixan.

## Artisautza eta gastronomixia bat eginda

**ATZO HASI ETA DOMEKARA BITTARTIAN, JC200 ENPRE-SIAK UDALAREN LAGUNTASUNAREKIN** urtero antolatzen daben Zaporien Azokia egongo da martxan Untzagan. Beste urtietan egin daben moduan, ferixian parte hartzen daben saltokixetan artisautzak eta gastronomixiak bat egingo dabe aurten be. Azokaren zatirik haundixena artisautzari eskindutakuak hartuko dabe, baiña horretxekin batera, bestiak beste, Errioxako eta Nafarroako konserbak, euskal ogixa eta goxuak, Gaztelako hestekixak eta Kantauriko konserbak erosteko aukeria izango dau jendiak. Artisautzari eskindutako tartian, barriz, orotariko produktuk ipiñiko dittue salgai: egurrezko irudixak, narruarekin egindako gauzak, Indiako



arropak eta bitxixak, olibondo egurrez egindako biharrak, hazixekin egindako bitxixak eta beste asko eta asko. Eta horrekin batera bestelakuak be egongo dira erosteko moduan. Bestiak beste kuxinak, zartagiñak, pintturak, eskularru ekologikuak, Aloe Verarekin egindako produktuk, munduko liburririk txixixenak, Marokoko te klase diferentiak eta Galiziako olagarrua topauko dittue gerturaten diranak. Azokia goizez 11.00etatik 14.30xetara egongo da zabalik eta arratsaldez 17.00etatik 22.00xetara.

Zubitik zubira egin dogu azken aste bixetan. Pilarika dala, Euskadiko Eguna dala, asteburu luziak euki dittue asko eta askok. Espainiako Enpresarixen Patronalak, beran aldetik, astian zihar solte geratzen diran jai-egun horrek astelehenetan jartzia proposatzen dau zubirik ez egoteko.

## Jai-egunak batziaren alde zagoz?



**CARMEN JULIA PEDRAZA**  
38 urte  
langabia

Neri begittantzen jata hobe dala jai-egunak beran egunian ospatzia, astian zihar egun soltian bada, ba holan. Oiñ arte holan egin da eta modu egokixa dala pentsatzen dot, ez dakitt zegaittik aldatu biharko zan.




**JOSEBA BADIOLA**  
48 urte  
bihargaña

Neri begittantzen jata jaixak tokatzen diranian ospatzia ondo da-guala, beran tokittik mobidu barik. Nere biharrian egixa esan ez dot igartzen jai-egunak asteburura batzen diran edo ez, orduan, berdin jata egixa esan.

**M<sup>a</sup> CARMEN FUNDAZURI**  
61 urte  
etxeoandria

Oiñ arte normalian egin dan moduan egittia ondo ikusten dot, ez dakitt zegaittik aldatu biharko litzaken. Bestela be, asteburura batzen badittue jai-egunak, ondo ikusiko neban, holan asteburu luiziaz aprobetxatu ahal dalako. Aukera bixak dake bere alde onak.



**J. MARI OLCOZ**  
63 urte  
jubilaua

Nik hirugarrenen bide bat proposatuko neban: holako jaixak ez ospatzia. Euskadiko Eguna eta halakuak ospatzia kenduko neuke, eta holan ez zan berba eingo jai-egunak asteburura batzian gaiñan ez ezer.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizeta 20 - behea, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erruskaio labak

Egubonen (ligna poligonar)

Artikular, nuklo eta osegura erretu zerbitzuak

Koizak - Eskala - Urtarrirako iraketa

Fuakal Herri osoko ospitaleen bertan da luge

Nazio eta Nazioarteko tralajeak

**Mugica Ehorzketa**

TELEFONUA (24 ORDU)  
**943 201 951**

**Mara Mara**

**MENDI KIROLAK**

ARRAGUETA  
KALEA, 10  
EIBAR  
943-702063

## Emakumeen ikasteko gosea

*Adin nagusitasunera iritsi da Pagatxa Emakumeen Elkarteak. 18 urte bete ditu aurten eta osasun ezinhobe du. Zergatik? Elkarteak osatzen dutenek etengabe hezitzeko gogoia dutelako, "ikasteko gosea" dutelako.*

Euren eskuekin egindako artisautza lanak ikusgai izan zituzten Pagatxako emakumeek Topalekuan urriaren 14tik 23ra. Aurreko kurtsoan egindako lanak ziren bertan ikusi zitezkeenak eta egileak "oso pozik" agertu ziren izandako harrerarekin. "Jende asko etorri zen eta lan oso politik ikusi ahal izan ziren", dio Maribel Alzerrekak. Pili Aseginolaza eta Amaia Amutxastegi bezala, Maribel Pagatxako zuzendaritzako kidea da eta elkartearen gainean berba batzuk esateko batu ziren gurekin.

1993an sortua, Pagatxako zuzendaritzan dagoen errelebo falta aipatzen du hirukoteak. "Inork ez du lekukoa hartu nahi. 'Oso ondo egiten duzue' esaten digute, baina guk lagatzeko gogoia daukagu". Hala ere, elkarteak kideek esaten dien hori ezin da gezurra izan, 18 urtean elkarteak modu onean eraman baitute ikastaroak sortuz, bi-



Bidaia eta txango gehienak Frantziara egin dituzte Pagatxako emakumezkoek.

daiak antolatuz eta, orokorrean, elkarteak kudeatuz.

Argatxan zegoen Formakuntza Zentruaren lekukoa hartu zuen Pagatxak. "Zentroaren arduraduna jubilatu zenean emakume asko eta asko leku barik geratu ginen kurtsoak eta abar egiteko, orduan, Pagatxa sortzea erabaki genuen", diote. Elkarteak sortuta, hala ere, gauzak ez ziren errezak izan. "Poliki-poliki albo batera utzi gintuzten erakundeek, tokia ere kendu egin ziguten, baina hor jarraitzen dugu oraindik". Horrela, urteko batzarrak Andretxean egiten dituzte eta, ikastaroak, Portalean.

### Ikastaroak bai arrakasta

500 bat emakume daude Pagatxaren barruan, "baina gehienek urteroko kuota ordaintzen dute eta gehienek eskursioetara baino ez dira joaten". Kurtsoetan parte hartzen dutenak "20 bat izaten dira". Urteko kuota 12 eurokoa izaten da, "baina kurtsoak beste alde batetik ordaintzen dira". Zuzendaritzako ki-

deen berbetan, "ikastaroak ez dira doan izaten; bestela, ez zen seriotasunik egongo: 'gaur ezin naiz etorri', 'eguraldi ona dago eta hondartzara noa'... ordainketak nolabaiteko erantzunkizuna behartzen du".

Urritik ekainera, hainbat ikastaro eskaintzen ditu Pagatxak. Artearen historia, irakurketa, eskulanak, ingelesa, dantza eta yoga. "Emakumeak etxetik irten eta jende berriarekin harremanak egitea da gure asmoetariko bat". Kurtso hauen arrakasta azpimarratzen du hirukoteak, "jendeak 'jiji-jaja' ibili nahi du".

Elkarteak dituen 18 urte hauetan, hala ere, gauzak aldatu egiten direla onartzen dute. "Lehen gauzak ikasteko gogo handiagoa izaten genuen. Orain ez da jende gaztea etortzen, aspertuta daudelako edo maila kultural handiagoa dutelako. Guk kultura gosea genuen". Horrela, elkartearen edozein adinetako jendeak parte-hartu ahal badu ere (badaude 20-30 urte bitartekoak), "kurtsoetan 55 urtetik gorakoak batzen gara gehien bat". Zentzu horretan, "zahartu egingo gara eta ea zer gertatzen den ondoren, baina bitartean aukerak ematen ditugu". Emakume-

ek, euren esanetan, asko eskertzen dute hori.

### Bidaia urtero

Gauza ezberdinak ikasteaz gain, aisialdirako aukera ere izaten dute Pagatxakoek. Urtean zehar hainbat irteera egiten dituzte eta, horien artean, hiru eguneko irteera bat. "Frantziara joan izan gara gehien bat: Loirako gazteluetara, Parisera, Britainia aldera, Carcassone-ra... Eta Sevillan ere egon izan gara". Lehen 3 egunak autobusan egiten zituzten, baina orain hotela hartzen dute bigarren egunean lo egiteko. "Gogorra zen egunero autobusean lo egitea. Adinean gora egin dugu eta, zergatik ez, orain hotelean gau bat pasatzen dugu".

Elkartearen barruan giro ederra bizi dela esan dute Maribel, Amaia eta Pili, eta urteroko bidai honek emakumeei toki berriak ezagutzeko aukerak eskaintzen dizkiela uste dute. "Askok diote euren gizonekin ezin izango zirela Paris bezalako leku batera joan. 'Gizona Parisera frantsesa jakin barik? Tu-ru-ru'".

Hurrengo bidaia urtarrean egingo den batzarrean erabakiko dute. Ea nora abiatzen diren Pagatxako emakumeak.





*Adituek munduko 5 mentalista onenen artean kokatzen dute Anthony Blake asturiarra. Telebistako hainbat saiotan ibili eta gero, fama haundiena 2002ko Gabonetako Loteriaren zenbaki irabazlea asmatzeagatik heldu zitzaion. Gaur Coliseoan 'Más cerca' ikuskizuna eskainiko du 20.30etatik aurrera (15 euro).*

**ANTHONY BLAKE**, magoa:

## “Ez daukat botererik, trebetasuna baizik”

**- 'Más cerca' izeneko ikuskizuna eskainiko duzu gaur Coliseoan. Zerbait iradoki nahi du tituluak?**

Gertutasuna, beste barik. Publikoa eta ni neu gertu egongo gara ikuskizunean eta zerbait intimoa biziko du joaten denak. Publikoaren alboan egon nahi dut eta hauek nigandik gertu sentitu daitezen ere nahi dut. Horrela, jendeak ikusi ahal izango du zer den egiten dudana eta, era berean, hori sentitu. Pentsatzen dut ikuskizun dibertigarria dela, jendeak momentu ona pasako duela. Izan ere, hori da asmoa: bizi dugun sasoi honetan ondo pasatzea, eta krisia eta halakoak momentu batez albo batera lagatzea.

**- Adimenaren magoa bezala definitzen duzu zure burua. Baina zer da hori zehazki?**

Magoa baino, esango nuke ilusionista bat naizela. Izan ere, egiten dudana jendearen ilusioa da, ikusi dutena ikusi dutela pentsatzen dute, edo pentsarazten diet.

**- Eta nola iritsi zara adimenaren magoa izateraino?**

Lan askorekin (barreak). Eten gabeko lana da. Egun osoa ematen dut nire ikuskizunetan zer egin dezakedan pentsatzen, horregatik beti daramat koadernotxo bat eskuan. Eten gabeko lana da, ahalegin handia eskatzen duena, baina gustu handiz egiten dudana, nire pasioa delako. Pentsa, 28 urte daramatzat horretan eta lehen eguna izango balitz bezala dihardut lanean.

**- Aurretik esan duzu 28 urte daramatzazula mago edo ilusionista moduan. Denbora honetan aurkitu al duzu buru zeharkaezinik?**

Ez, horrelakorik ez dago. Dagoena da jende nahiko ergela edo dena delakoa, baina nire ikuskizunetan parte hartzen duen jendea bolondresa da, 60 bat ikuskizunero, eta nik ez dut inor behartzen parte hartzera.

**- Magoa edo ilusionista jai edo egin egiten da? Hau da modu batean ahalmen horiek...**

Baina zein ahalmen?! (barreak)

**- Horrelako zerbait ematen du kanpotik begiratuta.**

Ez, ez, ez dago ahalmenik. Izatekotan trebetasuna da, urteetan zehar eta lan asko eginenez garatutako trebetasuna. Baina botererik ez, horrelakorik ez dago.

**- Hilabete bi baino gutxiago falta dira Gabonetarako. Loteriaren kontuaren gainean entzun beharko dituzu, bada, hainbat eta hainbat esamesa.**

Urteak joan urteak etorri gertatzen zaidan zerbait da. Noiz izan zen egin nuen trikimailu hura?

**- 2002an.**

Ba horrela jarrai dezala, publizitate handia egiten baitit (barreak). 9 urte daramatzat Gabonetako Loteriaren zenbakiak jakin nahi dituen jendearekin elkartzen. Ez zen, bada, kanpainia txarra izan. Probokazio ekintza izan zen. Badaude Gabonetako Loteria baino




zozketa garrantzitsuagoak diruari dagokionez, baina honetan ia estatu osoak hartzen du parte, %97ak! Beraz, ez da zozketa hutsa, ekintza soziala baizik. Orduan, denok adi zeuden: “*Ea tontolapiko honek zenbakia asmatzen duen*”. Barregarriena jendea horrelakoak entzutea da: “zurea trikimailua izan da”. Nola ez, ba? (barreak). Jendeak ni magoa naizela ahazten du. Dena dela, ez dut errepikatuko. Ez dut nahi harrokeria izatea, baina Gernika koadro bakarra dago eta ikusten dudanean sentitzen dudana izugarria da. Baina bi baleude? Egin nuena hor geratzen da eta nahiago dut horrela izatea, ‘urtero loteria asmatzen zuen zoroa’ bezala geratzea baino. 2010eko Munduko Foball Txapelketan antzeko zerbait egiteko asmoa neukan, baina telebista-eskubideen afera zela-eta ezin izan nuen egin.

**- Zer egin behar zenuen?**

Munduko Txapelketan gertatuko zena pausoz-pauso azaldu. Hala ere, 2014koan egiteko asmoa daukat oraindik. Pentsa, gabonetako Loteriaren kontua TVEren tiraderan 6 urtez egon zen. Ezer egiten ez zutela ikusita, Antena 3ekin akordioa lortu eta aurrera eramanez gure ekintza. Horren ondorioz sortu zen arreta guztiarekin milioi askoko doaineko publizitatea lortu genuen Antena 3, Securitas eta nik neuk. Loteriaren zenbaki irabazlea irten zen unean %48,7ko audientzia izan zuen Antena 3ek, historian izan duen altuena!

Elkarrizketa osoa: [www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)



Urriaren 17xan, ez ohiko udal batzar edo plenuan, datorren urterako udal zergak eta tasak 2010eko Kontsumorako Prezio Indizeari jarraituta, %3 igotzia erabagi eben, PSE eta PPko zinegotzixak emondako aldeko botueri esker. EAJ alderdiko zinegotzixak abstenziñuaren bidia hartu eben eta Bilduko ordezkariak, barriz, kontrako botuak emon zittuen. Momentuz plenuan erabagittakuak probisionalak dira eta danak jasotzen dabezen dokumentaziñua edozein herritarren eskura ipiñi dabe, legiak diñuana beteta. Danok pagau biharreko zergen gaiñeko informaziñua zuzenian konsultau nahi dabenak Udalera juateko eskubide osua daka eta bertako idazkaritzan lagako detse idatzixa. Zeozerekin ados ez daguanak, barriz, hillaren 26xa baiño lehen egin biharko dittu erreklamaziñuak, egun hori pasauta horretarako tarterik ez dau izango-eta. Udalak zergeri esker 12 millioi euroko diru-sarrerak jasotzia espero dau, hurrengo urterako izango daben aurrekontu osuaren %38.



## Datorren urterako zergen ordenantzak danon eskura

**P**lenuan onartutako erabagixak eta neurrixak datorren urtia hastiarekin batera, urtarrillaren 1ian sartuko dira indarrarian. Azken urte bixetan, eta krisi ekonomikuaren aitzakixarekin udal tasa eta zergetan igoerarik aplikau barik egon ostian, hurrengo urtian pagau biharreketan batz beste %3ko igoeriarekin etorriko jakuz ordainagixak. Eta kasu konkretu batzuetan mediatik aldendu eta oindiok be gehixago igarriko detsagu igoerari. Bestiak beste eta adibide bat ipintziarren, igoera haundixagua eukiko dabenen artian Kirol Patronatuak eskintzen dittuan zerbitzuetako batzuk dagoz eta, horregaittik, hainbat ikastaro eta jardueratan igoeria %5ekua izango da abo-

nauendako eta %10ekua abonauak ez diranendako.

Ondasun Higieziñeri lotutako zergari esker Udalak 4'4 millioi euro inguru jasoko dittu etxebizitza edo lokalen baten jabiak diranen eskutik eta hori izango da, duda barik eta ohikua dan moduan, Udalak izango daben diru-itturri inportantienetakua. Ibilgailuekin lotutako zergetan eibartarrok pagauko doguna, barriz, 1'5 millioi euroren bueltan ibilliko da. Eta jarduera ekonomikuen gaiñeko zergak 700.000 bat euro emongo detsaz Udalari.

### Defizita sortzen daben jarduerak

Baiña dirua emon barik, "defizita" sortzen daben beste hain-

bat zerbitzu gogora ekarri nai izan zittuan Miguel de los Toyos alkatiak: "San Andres zaharren egoitzak eragindako gastua zama haundixa da, adibidez, urte amaieran berari lotutako dirugalerak 377.000 euruen bueltan ibilliko diralako. Etxerako Laguntasunerako Fundaziñuak, barriz, 100.000 euroko diru-sarrerari baiño ez daka eta berari lotutako defizita, barriz, 674.000 euro ingurukua da (Diputaziñuak 400.000 euro hartuko dittu bere gaiñ eta Udalak, barriz, beste 174.000 eurukua)". Aittutako horrek adibide batzuk baiño ez dira, baiña horrek eskindu ahal izateko Udalak beste toki batzuetatik dirua jasotzeko dakan premiñia gogoratzeko nahikua. Eta baita zergetan aplikau-

ko dittuen igoerak justifikauta geratzeko.

EAJko ordezkariak botaziñorako orduan abstenidu ziran, kontu batzuekin ados egonda be, beste batzuekin ez dabelako erabat bat egitten eta, bestiak beste, "Eibar bizitzeko oso hiri karua" dala kejatu ziran.

Udalbatzak hartutako erabagixaren harira, Bilduko ordezkariak autuaren gaiñian egitten daben baloraziñuaren arabera, "Udaleko politika fiskalak berebiziko garrantzixa dauka, izan be Udalarendako diru-sarrera iturrixa izatiarekin batera, herritarren poltsikuan zuzen-zuzenian eragitten dabelako. Horregaittik, Udalari lotutako zerga eta tasak ezartzian, agerixan geratzen dira politika aurrerakoi eta ezker-

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. 943 201095 Fax: 943 202564

tiarren eta politika konserbadorien artian dagozen ezberdintasunak. Bilduk argi ikusten dau oin momentuan bizitzen dihardugun egoeria kontuan hartu biharra daguala eta, gauzak dagozen moduan egonda, gitxien dakenen eskubidien aldeko erabagixak bestien gaiñeko lehen-tasuna euki bihar dabela".

### Herritarren parte-hartziaren gaiñian

Horrekin batera, herritarren parte-hartziari lotutako kritikia egitten dabe Bilduko ordezkariak: "Guretako Udalaren jardueraren ardatz nagusixa herritarren parte-hartziak osatzen dau eta, horregaitik, gai honen gaiñian eta talde moduan dakagun jardueran informaziño eta komunikaziño kontuetan sakontzeko helburuari segitzen detsagu. Izan be, aurrekontuak osatzeko orduan herritarren parte-hartziaren aldeko apustua egitten dogu. Hain zuzen be, PSE alderdixarekin legegintzaldirako adostasunetara ailegatzeko bidian topau dogun trabarik haundixena arlo horretan agertu jaku, aurrekontuak osatzeko orduan erabilbi biharreko gestiño ereduarekin ez dogulako bat egitten".

Aurreko guztiak kontuan har-



Kirol Patronatoko zerbitzu batzuetako igoeria %5ekua izango da abonauendako eta %10ekua abonauak ez direnendako. / ARTXIBOA

tuta, gogor salatu dabe udal tasen gaiñeko ordenantzak onartzeko plenua egitteko modua: "Ez gaoz ados goizeko 09.30xetan hasi zan pleno berezixan holako erabagixak hartziarekin, normalian eta urte osuan plenuak arratsaldian, 19.00etan deitzen dittuenian, hain zuzen be bertan parte hartu nahi daben herrittarrerri juateko erreztasunak emoteko. Pleno honetarako, barriz, herriko komunikabidieri be ez jakuen deialdirik ailegau. Errentak eta tasak ezartzeko momentu hori gerora 2012ko au-

rrekonturako prozeduran lehelengo pausua izango da-eta".

### Azaruaren 26ra arte

Gauzak holan, eta aurrekontuak osatzeko orduan herrittarrerri tartia eskintzeko asmuari atzera be helduta, aurreko urriaren 17xan onartutako ordenantzen onarpena "behin-behiñekua" dala azpimarratu dabe eta, beraz, "horren gaiñeko errekursoak presentatzeko aukeria zabalik daguala azaruaren 26ra arteko epian, informaziñua publikuaren eskura egoteko legiak ezartzen daben tartian hain zu-

zen be. Eibartar guzti-guztiak, ordenantzak eragitten daben edozeiñek izango dau horren inguruko erreklamaziñuak egitteko. Adibide bat ipintziarren, edozeiñek eskatu leikixo progresibidade eta birbanaketa printzipiueri jarraitzia eta gehixen dakanak gitxien dakenen alde pagatzia. Edo gitxieneko soldatia be kobratzen ez dabeneri pagatzeko derrigorra kentzia edo bonifikaziñuak aplikatzia. Edo beste mailla batian, zirkulaziñuari lotutako zergan progresibidadia aplikau eta ibilgailuaren zilindrariaren arabera pagatzia. Edo herriko jaixetako partia diran kontuetan, txosnak-eta ipintzeko kalia okupatziarren pagau biharrekua inposaketa bittartez ez grabatzia".

Behiñ azaruaren 26xa ailegauta eta, beraz, espedientia jendeaurrian egoteko legiak aurrekusten daben bete biharreko epia amaittuta erreklamaziño edo bestelakorik jaso ezian, oin behin-behiñeko izaeria daken erabagixak behin-betiko izaeria izatera pasauko dira. Hau da, definitibo bihurtuko dittue eta, aurreratutakuari jarraituta, datorren urtia hastiarekin batera aplikatzen hasiko dirala.

**33.151**  
...eta kitto!-ko  
**GABONETAKO LOTERIA**

**Loteria hartzaileen artean, abenduaren 14an GABON-OTARRA zozketatuko da**

**SALGAI DUZU:**  
Udal Euskaltegia  
AEK Euskaltegia  
Isasi okindegia  
Zabaleta okindegia  
Untzaga prentsa  
Urkizu prentsa  
Kultu taberna  
Mujika harategia  
Valenciaga jantxidenda  
Izadi loradenda  
Zubi-Gain kafetegia  
San Andres gozotegia  
Dibutec fotokopiadenda  
Bolin txo okindegia  
Bankoa  
...eta kitto!

**ARTOLA**  
jatetxea

**ASTEBURUKO  
DEGUSTAZIO MENUA**

Lomo iberikoaren carpaccio-a  
Etxeko foie-a  
Ganba, perretxiko eta espinaken nahaskia

Legatza labean edo  
Bakailaoa Club Ranero erara

Solomilloa plantxan edo  
Ahate confit-a

Degustazio postrea edo  
Limoi sorbetea cavarekin edo  
Txokolate mousse-a Armagnac erara


Etxeko Errioxako kiantza ardoa,  
sagardoa edo beste

Astehenetik barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
**15 €**

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 €** + BEZ

TEEN-  
AJEA



Arragueta kalean enpresa berria jaio da. Gaztea jaio berria delako eta enpresa gidatzen dutenen adina ere horrelakoa delako. Leire Aldalur eta Pablo Zubiaurrek AZ Marketing sortu dute. Lanean dihardute dagoeneko eta webgunea ere martxan daukate: [www.azmarketing.es](http://www.azmarketing.es).

**LEIRE ALDALUR eta PABLO ZUBIAURRE, (AZ Marketing):**

## “Enpresari izateko gogoia da gehien behar dena”

**- Zer da AZ Marketing?**

Enpresei ezagutzera emateko zerbitzuak eskaintzea da gure asmoa, publizitate tradizionalaren edo internetekoaren bitartez (web orriak): sasoi honetan enpresei aurrera irtetzeko aukerak eskaintzen dizkiegu, enpresek nahi dutenera moldatuz. Sortu berri den denda batek, adibidez, ezagutaraztea nahi badu, web orrialdea eta marka diseinatuko diogu (logotipoa eta abar), ezagutarazteko zerbitzuak eskainiz.

**- Enpresendako egiten duzue lan bakarrik?**

Orokorrean bai, baina partikular bat badator, berarekin ere egingo genuke lan.

**- Zelan animatu zineten aurrera egitera bizi dugun krisi ekonomikoarekin?**

Horregatik: sasoi honetan gauzak beltz daudelako. Beharrak zeintzuk diren pentsatzen jardun eta gero, gure ustez krisi sasoiaren jendeak ezagutzera eman behar du bere burua eta kompetentzia hori bultzatu. “Lana topatzea orain erraz ez dagoenez, guk egingo dugu lan”, pentsatu genuen.

**- Nolakoa izan da enpresa sortzeko prozesua?**

Hasieran gauza asko egin nahi izan genituen, baina poliki-poliki gauzak argitzen joan ginen: zer hartu eta zer ez. Aukeraketa egin dugu bidean.

**- Nola ikusten duzue zuen burua enpresari moduan?**

Ondo; baina, enpresariak baino, autonomo bezala ikusten dugu gure burua, guretzako egiten baitugu lan. Ez daukagu inperiorik. Tituluak izen handia dauka, baina horretarako ez dago adinik. Aurrera joateko gogoia badaukazu, laguntza eta aukerak daude; Debegesak laguntzeko zerbitzua eskaintzen dizu, adibidez. Gogoia izanda, denon eskura dago enpresari izatea.

**- Nolakoa izan da hasiera?**

Martxan gabiltza: lan bi ditugu esku artean. Itxaropena dugu.

**- Alde handia dago pentsatzen zenuena eta errealitateak erakutsi dizuenaren artean?**

Momentuz, ez. Hasierak ez dira errazak, baina zerbait berria eskaintzen dugu eta horren beharra badago. Gauza da jendeak behar hori duela ikustea.

**Ketesu 2010** bulego eta kudeaketa materialen instalazio osorik eta materialak altxorrik, arloak, inbentarioak, fakturategiak...

**Ko 2010**

**bulego materiala enpresetan banatzen dugu**

Enpresari kalea, 12  
28009 Getaia  
95 44111971 / 94422172  
fax: 944237888  
www.ko.com

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelarrera, gaztelaratik euskarara, eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**

[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

*Berdinsareak Beldur Barik!  
Jarrera sariaren 2. edizioa  
jarri du martxan, emakumeek  
berdintasunaren aldeko  
eta emakumeenganako  
indarkeriaren aurkako  
apostua erakusteko.*

## Beldur bariko emakume gazteak

**B**eldur Barik! lehiaketak "errespetua, berdintasuna, askatasuna eta autonomia, erantzukidetasuna, eta indarkeria tinko baztertzeko oinarritutako jarrera eta jokabideak hartuta, emakumeenganako egungo desberdintasun-egoerari neska-mutilek nola aurre egiten dieten erakusten dituzten adierazpen artistikoak aitortu, baloratu eta bultzatu" nahi ditu.

Antolatzaileen berbetan, "Beldur Barik! ez da bakarrik lehiaketa bat, prozesu bat da". Orain duela urte bi Berdinsarean lan egiten duten berdintasunaren aldeko teknikariek hurrengo datuak irakurri zituzten: Euskadiko salaketan %42 32 urtetik beherako emakumeenak izan ziren. "XXI. mendean oraindik, mundu osoan eta egunero, emakumeak erahiltzen dira. Horren atzean indarkeria sexistak dago". Horregatik prozesu parte-hartzailea bilakatu zen kanpaina martxan jarri zuten, helburua gazteak gaiari buruz pentsatzea eta inplikazio aktiboa sustatzea izanik.



1azko edizioan Eibarko Pausoz-pausoko taldeko dantzariak irabazle izan ziren.

### Nori dago zuzendua?

Lehiaketa, antolatzaileen berbetan honakoei dago zuzendua:

"kalean bakarrik ibiltzeko beldurra baduzu; kontrolatu eta umilia zaitzaten prest ez zaudelako bikote-harremana hautsi baduzu; 'benetako gizon' izateaz, inoiz zure sentimenduak agertzeko edo partekatzeke aukerarik ez izateaz nazkatuta baldin bazaude; zure sexualitatea askatasunez bizi nahi baduzu; ezezkoa ezetz dela eta baiezkoa baiezko dela ziur baldin bazaude; eremu publikoren batetik erasoak jaso duzulako alde egin baduzu eta nola jokatu ez zenekielako; beldurratigatik hainbat ekintza egiteari (zinemanara, mendira, kontzertuetara... joan) utzi badiozu; etengabe zeinen ausarta, gogorra eta indartsua zaren frogatu behar izateaz nazkatuta bazaude; beldurrak geldiaraz zaitzan uzten ez baduzu eta bakarka abenturak izaten ausartu bazara; eta 'ustez' broma sexistez nazkatuta baldin bazaude".

### Edozein adierazpen mota

Guzti horiei zuzentzen zaie lehiaketa, eta bertan parte-hartzeko Euskal Autonomi Elkartearen udalerriri batean errolatutako 12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilla izan behar da. Era berean, ka-



tegoria bi egongo dira: 12-17 urte bitartekoa, eta 18-26 artekoa. Horrela, kategoria bakoitzeko irabazle bakoitzak 1.000 euro lortuko ditu eta kategoria biak biltzen dituen Herri Sariak 300 euro banatuko ditu.

Lehiaketak Beldur Barik jarrera erakusten duten edozein adierazpen mota onartzen du, "bitarteko edo teknikak bereizi gabe". Horrela, ekintzak, ideiak, bideoak, argazkiak, proiektuak, musika, poesia, eskultura, dantza, animazioak, performanceak, gogoetak, ilustrazioak eta abar, onartzen dira. Lanak entregatzeko epea, bestetik, azaroaren 11n amaitzen da.



- **tartak**
- **enkarguak**
- etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



**Autoa, Etxebizitza, Istripu eta Bizitza aseguruak...  
...ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK**

**Estazilño, 12 - behea Tel. 943-257545 Fax. 943-257546**

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**

HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14  
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT Hartz Klinika**

Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hartz osasuneko hartzak hartzak hartzak hartzak hartzak

943 20 10 01

**m bista eder**

Inbarrak gazte egiten gaitu

Implante eta Hartz-Estetikako zentruak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA  
644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

# OSASUN

**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02

**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hartz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**

**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia ume eta helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
**hartz-klinika**

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
**ERREHABILITAZIOA**

\* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala  
\* Logopedia  
\* Inkontinenzia urinarioak  
\* Kirol medikuntza  
\* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato Eibarrés*

**Errehabilitazioa eta Fisioterapia**

**Urkizu 9 - behean**  
**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxe - 943 12 03 58  
patronatorehabi@terra.es

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Urkizu, 6 Behean - Tel - Fax: 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

Hemen zure tokia  
izan nahi baduzu  
deitu **943-206776**  
telefono zenbakira



# GOYA

## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
**ARRAQUETA, 20**  
T.F. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI OSTEOPATIA  
901 kolegiatu zbia. NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistak



**JOSE ALBERDI**  
**ARRATSALDEZ**  
San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82



**Clinica Oftalmologica**  
**RECALDE**  
Oftalmologi Klinika  
Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



**BIDEBARRIETA, 48 EIBAR**  
943 203050  
**ERDIKO KALE 54 ARRASATE**  
943, 799746  
**PODOLOGIA**  
Etxe Klinikak  
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**  
**Maidor Lopez Etxebarria**  
**Arragueta 2 Bis-B, Behea C**  
Tfnoa. 943 82 04 88  
65 Kolegiatu zbkia.



**Iñaki Rivero Zabaleta**  
**Calbeton, 4 - 2.**  
**(Untzagako dorrea)**  
**Tel. 943 20 86 41**

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----  
**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**  
- Afasiak - Dislexiak  
- Disfoniak - Hizmoteltasuna  
- Dislaliak - Eskola arazoak  
- Degluzio atipikoa  
T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA**  
  
**Arrate Garitaonandia**  
**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO TRATAMENDUAK**  
**Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66**  
a\_garitaonandia@hotmail.com

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**  
  
**Oscar Mondragon Lili**  
Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**  
- Mamografiak  
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)  
- Hertz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)  
**TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak**  
**TRATAMENDUAK** hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin  
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Eibarren jaioa da Jon Larrañaga eta gurean izaten da "urtero sei bat bider, familia-eta bisitatzen". Badira zazpi bat urte Murtziara joan zela bizitzera, "nire osasunaren mesederako", eta handik bizitza proiektu berri bati ekin dio. Badu horretarako konstantzia eta kemena eta badaki zer den sufritzea. Biriketako enfisema diagnostikatu ziotenetik, zaila izan du arnasa hartzea ere; baina biriketako trasplante batek berpiztu egin zuen gizona eta, berarekin gertatutakoa eskertzeko, Jonpedalea izeneko proiektuan dihardu, buru-belarri, "donazioak bultzatzeko asmoz eta bizikletak eskaintzen duen bizitza osasuntsuago baten alde".



## Kontzientziazioaren aldeko borroka

**G**ustora hartu gaitu eta baita erraztasun ugari eskaini berarekin izan dugun harremanean. Jon Larrañagak, Murtzian bizi arren, Eibar daramalako berarekin. Osasuna jokoan, hara joan behar izan badu ere: "Nire birikek asko eskertzen dute hemen bizitzea. Euskal Herriko klimak ez dit mesede larregirik egiten, ahal dudanean horra joaten baina ere egun batzuk pasatzeraz". Ipuruan bizi izan da beti eta han du oraindik ama, Antonia.

Angel, aita, Otxandiokoa zen: "Eibarko Casinoan ibiltzen zen asko, billarrean txapelduna ere izan zen eta perretxikoak eta sarbuskailuak hartzea zituen zaletasun. Bere lagunek gogoratuko dute", diosku harro.

Mende erdia gainditu du eibartarrak (1960an jaio zen), baina 30 bete zuenetik honaino "gaztetu" baino ez da egin Jon Larrañaga. Arnasa behar den moduan hartzeak duen garrantzia. Biriketako enfisema diagnostikatu ziotenetik, gero eta al-



Trasplante operazioa egin zion talde medikoarekin, iazko Valentzia-Murtzia probaren aurretik.




Patinatzea da Larrañagaren beste zaletasunetako bat. Eibartarrak ez dio bere buruari mugarik ipini nahi.

dapatsuago egin zitzaien bizitza Larrañagari: "Batez ere, nire burua gurpildun aulkira kondenatua ikusi nuenean. Kandela banintz bezala, amatatzen nindoan, gutxinaka". Muga-mugan zegoen oraindik gaztea zena. Eta, halako batean, berarenak baino birika osasuntsuagoak gerturatu zitzaizkioten. Zergatik aukeratu zuten medikuek bera izatea jasoko zituena?

"Nire egoera ez zen onena. Gorputzari erreparatuz, ahul nengoen guztiz. Baina baikorra izan naiz beti eta horri erreparatu zioten". Trasplantearekin zeozer hartzera irtetzea eta hizketaldi bat normal antzean egitea beste helbururik ez zuenak, behin operaziotik irtenda, beste bide bati ekin zion. Modu batean edo bestean, eskertu nahi izan zuen berari birikak eman zizkiona eta haren familiak egindakoa eta, horrez gain, "gizartea kontzientziatu horrelako jarrerak eskaintzen duen onuraz".

Gaueko 22.00etan sartu zen kirofanora eta goizeko 06.30ak bueltan atera zuten. "Hamar bat




ordu egin zuten nirekin. Hala ere, ondorengo errekonferentzia fasea ez zen erraza izan, baina orotzaperen politikak ditut. Ez zitzaidan gogorregia egin". Ikusita eman zuen jautzia ez da harritzekoa: "Operazioaren aurreko sasoiak pelikuletan norbaiti burua plastikozko poltsa baten sartzen dioten antzerakoa zen, ezin amasa hartu... Gerokoa, nabaritzea birikak betetzen direla, hasieran mina hartu arren... hori bai bazitza". Valentzian egin zioten aipatutako trasplantea.



### Bizikleta: osasunerako lagun

Hiru urte dira operatu zela: eskerrak emateko eta entregarako mila egun baino gehiago. Lehenengo senderismoa egin zuen batez ere, "aitarekin egin-dako mendibuetak nere eginez berriro". Baina berehala eman zuen jauzia bizikletara; eta baita muskulatura indartu eta maila batera iritsi. Eta iaz Emailearen Zeharkaldia proba antolatu zuten, Valentzia (operatu zuten hiria) eta Murtzia (bertan bizi da) lotuko zituena. 230 kilometroko proba, "oxigeno botila bat eramatetik birika birekin bizitzera dagoen aldea adierazteko". Hainbat txirrindulari profesionalak, tartean Alejandro Valverdek eta beste askok, lagundu zuten ekitaldian.

"Arrakastatsua izan zen" badio ere, istripu larria izan zuen Larrañagak helmugarako kilometro gutxi falta zirenean. Bi hilabete eta erdiko entrenamendu lanak ez ziren ondo amaitu eta erorketa larria izan zuen. "Golpe ederra hartu nuen buru aldean. Mugitu ezinik eta eserita lo egitera behartuta pasa nituen hiru hilabete. Hala ere, ilusio burbuila batean nengoen ordu-rako eta banekien aurre egingo niola", dio txirrindulariak. Sasoia hartzeko laguntza berezia izan zuen, estatu mailako prestata-



Mutrikun bizi diren Iraia eta Jone bere alabekin.

zaile onenetakoarekin: "Egun osoak eman zituen nirekin. Medikamentuek muskulatura jaten didate eta zaindu beharra dago eta atsedenaldiak ere araututakoak izan behar dute".

Edizio horretako mendekua hartu du irailean eta, oraingoan bai, ondo bete du Valentzia eta Murtziaren artekoa. Aurretik, baina, Kirolari Trasplantatuen Mundialean ere izan da eibartarra. Goteborgen jokatu ziren uda aldean: "Esperientzia polita izan zen beste trasplantatu batzuk ezagutu eta eurekin bizitzera. Hori bai, triatloian hartu nuen parte eta, beste batzuen ondoan, ez nuen izan egiteko askorik. Biriketatik trasplantatutako beste inor ez zegoen. Giltzurrunetik edo gibeletik tras-

plantutakoek zailtasun gutxiago dute, eguraldiak-eta ez diete hainbeste eragiten".

### Donazioen beharra

Jonpedalea izeneko proiektuak ematen dio zentzua orain bere bizitzari, "nik jasotako aukera beste batzuk ere izan dezaten". Altruismoz betetako jendearen laguntzat hasi zuten proiektua eta gaur egun "jasotzen ditudan e-mailak, jendearen animoek... bultzatzen naute borroka honetan.

Azken urteetan donazioak jaitsi egin dira gainera, "istripu kopuruarekin batera". Jendeak emalea izateko zer egin behar duen ez jakiteak emaleen kopurua asko jaisten duela dio: "Bestela, %30/40 igoko litzateke kopurua, erraz". Bitartean, bera kementsu: "Egunero 6-7 ordu egiten ditut bizikleta gainean, goizeko 06.00etan jaiki eta arratsaldeko 14.00ak arte. Hemen, gainera, 40 graduko tenperatura ez da arraroa izaten eguerdirako. Hori bai, lau egun jarraian euria egiten bado, orduan bai estresatzen dela jendea", dio barrezka.



Goteborgen aurten jokatu diren Kirolari Trasplantatuen Mundialean, Suediako printzearekin. Azken honek ere trasplantea jaso du, giltzurrunetako bere kasuan.



Jon operatu aurretik; eibartarrak ez zuen orduan gaur egungo osasunik.

Ez baduzu indarririk egiten, administrazioa ere geldo ibiltzen delako. Zeri itxaroten diegu organu-emale izateko kanpainak egin eta erabaki hori hartzeko bidea errazteko? Zergatik ez ipini datu hori NAN-ean, egoera heldzean familiari galdetzen ibili beharrean? Zein da familia, egoera horretan gainera, nik zer nahi nuen esateko? Bakoi-tzaren erabakia izan behar lu-ke", guztiz sinestuta hitz egiten digu eibartarrak, egoera aldatzeko aukera argi ikusiz.

Eta, donazioak bultzatzeaz gain, bizikletaren garrantzia aipatzen dute Jonpedaleatik: "Egunero erabiltzeko badago ezer osasuntsuagorik? Ejerzizioa egiten duzu, ingurugiroa kaltetu barik eta jasangarriagoa eginez. Hala ere, Murtzian bertan bizikletendako karririk apenas dauden: edozeratarko mugitu beharra duzu". Orbea etxeak eskaintako laguntza gogoratzen du Jonek behin eta berriro: "Laguntza teknikoarekin batera, giza-laguntza eskaini digute eta hori eskertzekoa da. Askok eman digute gure proiektuan". Bizikleta inguruko ekitaldi guztietan daude inplikaturik Jonpedaleakoek eta hainbat sari jaso dituzte: Mallorca 312, Cresta del Gallo eskalada, Bici-solidaria Elkarteko ohorezko bazkidea... Informazio gehiagorako: jonpedalea.es



Orbea etxeak eskaini dion laguntasuna eskertzen du Jonek: "Guztiz egin dute bat proiektuarekin"



Ipuruako junior taldea, Noelia Bediak, Irati Yarzak, Kristina Alegriak, Ane Gonzálezek eta Raquel Guerrak osatutakoa.

## Ipuruako taldeak podiumean Euskadiko txapelketan

**LEHENENGO MAILAKO TALDEA BIGARREN POSTUAN SAILKATU ZEN** eta junior mailakoak hirugarren postuan amaitu zuen, 2. arengandik 0'20 puntutara, asteburuan jokaturako gimnasia erritmikako Euskadiko txapelketan. Domekan Iruñean hartuko dute parte talde biek, Anaitasuna Torneoan, han ere abenduan jokaturako diren Espainiako txapelketen prestakuntza bidean. Laskurain, Ibaibarriaga, Gamundi,

Alonso eta Pérez izango dira lehen taldearen boskotea osatzen eta Bedia, Yarza, Alegria, González eta Guerra junior mailakoan.

Klubak indartsu jarraitzen du entrenatzen datorren asteburuan, zapatu eta domekako jardunaldietan, Durangon eta Bilbon jokaturako den Euskalgymean. eta, jakina, azaroaren 26an San Andres Torneoa izango da Ipuruan, Eibarko zaileen aurrean.



## Infantil mailako Urki lidergoan

**AIZKORRIRI 0-9 IRABAZITA, EIBARTARREK EUREN MULTZOKO LIDERGOA ESKURATU DUTE.** Oscarrek, Ikerrek eta Jorgek sartu zituzten bina gol eta Ander. G., Danel eta Jon L. izan ziren beste goleatzaileak. Maila bereko nesken arloko taldeak ere garaile izan

ziren azken asteburuan: horrela, A taldea 0-3 nagusitu ziren Arrasaten, Mondragónen aurkako partiduan, eta B taldeak, bestalde, 1-2 irabazi zuen Ikasberriren zelaian, galtzen joan eta gero. Ainhoa eta Julene izan ziren goleatzaileak azken herenean.

## Mailari eusteko pilota partidua gaur Astelenan (20.15)

**AURREKO ZAPATUAN LASARTE-ORIAN 22-15 IRABAZITA ERE, EGAÑA-BENGOETXEAK LARRI DAUKATE** mailari eustea gaurkoan galtzen badute. Andueza-Zendoia (edo Iparragirre) Azkoitiko bikotea izango dute aurkari eta ez bata ez besteak, bieta-ko inork ez du ziurtatuta datorren urtean goi mailan jardutea.



Egañak partidu garrantzitsua du gaur arratsaldean Astelenan.

## Saskibaloia Multikirolak-en barruan



**EIBARKO SASKIBALOI TALDEEN TXANDA IZANGO DA BIHAR GOIZEAN IPURUA KIROLDEGIAN,** Multikirolak barruko programazioan. Lehen bi asteburu arrakastatsuen ondoren, 12-13 urteko herriko ikastetxeetako neska-mutilek saskibaloian jardungo dute, goizeko 09.00etan hasi eta eguerdiko 13.00ak arte. Ia 130 saskibaloilari gazte batuko dira jardunaldian.




## Hiru-txirloko Euskadiko txapelketa bihar abiatuko da

**LAU JARDUNALDIETAN JOKATURKO DA TXAPELKETAREN XXII. EDIZIOA, LAURAK ERE HILABETE HONETAN:** bihar Elgoibarko San Pedron hasiko da, lehenengo tiraldiarekin, eta hurrengo hiru zapatuetan izango du jarraipena. Jardunaldiak, ohikoa denez,

arratsaldeko 17.00etan hasiko dira eta Iruzubietako (Bolibar), Elgetako eta Barinagako (Marina) bolatokiak izango ditu eszenatoki hilaren 12an, 19an eta 26an, hurrenez hurren. Edozein arazo dela-eta, Azpeitiko Garmendipeko bolatokia izango da ordezkoko.

## Eibar KE-k La Albueran bilatuko ditu hiru puntuak

**AUKERA POLITA DU JAVIER MANDIOLAREN TALDEAK JO-KOAN IZANGO DIREN HIRU PUNTUAK ESKURATZEKO**, multzoko talde ahulenetakoa izango baitu aurrez-aurre. Gimnástica



Xabier Iruretagoienak penalti bi gelditu zituen domekan Ipuruan.

Segovianak 6 puntu ditu (partidu bakarra irabazi du, hiru berdindu eta beste zazpiak galdu) eta eibartarren "biktima" izateko aukera asko, sailkapenari begiratu zergo behintzat. Partidua domekan jokatuko da, Segoviako La Albueran, arratsaldeko 17.00etan hasita. Eibartarrak, bestalde, sailkapeneko lehen lauren artean sartu dira lehengo aldiz domekan Ponferradinari 1-0 irabazita, Mainz-ek 94. minutuan sartutako golari esker (Leongo taldeak puntu kopuru bera dauka, 5. postuan). Ipuruan jokatutako partidu horretan Xabi Iruretagoiena eibartarren atezaina izan zen onena, penalti bi geratuta.

## Mendikoen batzarra datorren eguaztenean

**URTEROKO BATZARRA EGINGO DU EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO MENDI BATZORDEAK** datorren eguaztenean, hilaren 9an. Bilera arratsaldeko 19.30etan hasiko da aipatutako taldearen lokaletan eta, aurten egindako ekintzekin batera, datorren urtean egin beharrekoak aztertuko dira, egoera ekonomikoari ere errepa-soa eginez. Izango da tartea galdera-erantzunetarako.



Datorren urterako mendi-irteeren agenda zehaztuko dute eguazteneko batzarrean.

## Lidergoari eusteko saioa Anetxerentzat

**ERRUGBIKO HIERROS ANETXE LEHEN TALDEAK GARAI-PEN GARRANTZITSUA LORTU ZUEN** Altamirako zelaian Ordizia B-ren aurrean, maila tekniko altuko partiduan, maila tekniko altuko partiduan 20-28 nagusitu baitzen. Emaitza horrekin eibartarrak nagusi dira sailkapen orokorrean Gaz-

tediri 23-6 irabazi zion Zarautzekin berdinduta. Kostaldeko taldeak eta Isasak entrenatzen duenak bost puntuko aldea ateratzen diote dagoeneko Ampo Ordiziarri. Bihar, 16.30etatik aurrera, Baztan hartuko dute Unben eta armaginak irabazteko faboritoak dira.

## Barriola eta Irujoren arteko norgehiagoka handia

**LAU ETA ERDIAREN BARRUKO TXAPELKETA NAGUSIAREN LIGAXKAREN BIGARREN JARDUNALDIA JOKATUKO DA** asteburuan eta Astelenak lehenengoko jardunaldiko irabazleen arteko lehia hartuko du. Jaialdiko partidu nagusian, Barriolak edo Irujok (bietako batek) finalerako txartela eskuratu dezake azken emaitzen arabera -tantoen al-

dea nahikoa bada-. Titin III.ak eta Pascualek osatutako bikoteak Retegi Bi-k eta Zubietak osatutakoaren aurka jokatu beharreko partiduak zabalduko du jaialdia eta, amaierakoan, Apezetxeak eta Ladis Galarzak Jaunarena eta Arrutiri egingo diete aurre. Sarrerak aldez aurretik erosteko, 661-259009 (Olaya) telefono zenbakira deitu dezakezue.



Barriola eta Irujo bigarren garaipenaren bila borrokatuko dute domekan.

## Japoniako telebista Eibarko herri-kirolariekin

**EIBARKO EUSKAL JO-KOAK ELKARTEAK EGITEN DUEN LANAREN OIHARTZUNA** jaso du Japoniako telebistak eta talde bat gurean izango da

domekan, 12.00etatik aurrera, San Martin Azokaren inguruan Ermuan jokatuko den herri-kirol torneoaren grabatzen. Irudietan elkarte-ko partaideen hainbat erakustaldi eta egiten duten lana jasoko dute, hala nola Ernesto Ezpeletaren eta Dioni Kortinaren jarraripena egingo dute, azken honek Mendaroko ospitalean bere ogibidean eguneroko egiten duen behararekin batera.



Musika munduan bidea egiten diharduen Dani Gascón eibartarraren kontzertua jasoko du Coliseoak 18an. Disko bi kaleratu ditu dagoeneko. 'Sé tú mismo' azken disko honen 2. singleak arrakasta handia izan du.



**DANI GASCON, musikaria:**

## "Aldaketa asko egongo dira hurrengo diskoan"

**- Nola sentitzen zara hilaren 18ko zitaren aurrean?**

Oso ondo, ez baita lehen aldia Eibarren jotzen dudana; izan ere, zortzi urte daramatzat gitarrarekin tabernetan kontzertuak ematen. Taldearekin batera, bestalde, beste kontzertu bat ere eskaini nuen, baina 18koa Coliseoan izateak kutsu berezia ematen dio. Kontzertuak eskaintzeko toki berezia da eta jendea erakartaraziko duen 'cachéa' dauka.

**- Bilbon, Madrilén... izan zara. Nolako izan da kanpoan jotzeko esperientzia?**

Oso polita eta ahaztezina. Bandari eta niri musikari gehiagorekin eszenatokia elkarbanatzeko aukera eman zigun eta musikariaren bizimodua nolako den jakiteko ere bai. Furgoneta hartu eta musika giroan kilometroak egiteak ez dauka preziorik. Gainera, erantzuna ona izan zen aukera bietan.

**- Nola ikusten duzu musika munduan tokia egitea?**

Denok dakigun bezala, oso zaila da: denbora asko behar da, pazientzia handia eta lan asko. Hedabideetan ezaguturazi egin behar duzu zure burua, baita sare sozialetan ere, publizitatea eginez ahal den neurrian. Ahalik eta kontzertu


gehien eman behar duzu eta jendea inpaktatuko duen abestia lortzea komeni da. Eta, zorte oso ona badaukazu, disko-etxe batekin fitxatu.

**- Disko bi kaleratu dituzu. Nolako harrera izan dute?**

Oso pozik nago merkatuan ditudan disko biek. Lehenengo maketa moduan hartzen badut ere, nire abestiek gitarra eta ahotsa baino soinua hobeia izan zezaketela amesteko balio izan zidan. Bigarren diskoa hobeto prestatu nuen: banda bat kontratatu eta Lorentzo Records izen handiko grabaketa estudioa jo nuen. Diskoak urte bi daramatza kalean, baina jendeak oraindik eskatu egiten dit eta interesa daukate. 'Sé tú mismo' bigarren singleari esker, 40 Latinoan egon nintzen eta jende askok ikusi izan zuen.



**- Hirugarrena prestatzeko asmoa daukazu?**

Bai, oraindik sekretua da, baina Dani Gascónen soinua berria izango denaren abestiak sartzen dihardugu kontzertuetan. Rockeroagoa eta gaur egungo egoeraren aurrean positiboagoa da. Ekoizle bila gabiltza, diskoak izango dituen 10-12 abestiak zehazten. Hurrengo diskoan aldaketa asko egongo direla, hori ziur.




## Juan Antonio Palacios-en argazkiak

Azaroaren 2-an hasi eta hilaren 16-ra bitartean, Debako Turismo Bulegoan (Iifar kalea, 4) ikusgai izango dira Juan Antonio Palacios argazkilaria eibartarraren hainbat argazki, "Kostaldea" izenburuko erakusketan. Erakusketa bulegoa zabalik dagoen ordutegiaren barruan bisitatzeko aukera izango da, astelehenetik eguenera eta domeka eta jai-egunetan 10.00etatik 14.00etara eta barixaku eta zapatuetan 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.30etara.



## Argazki erakusketak tabernetan

**KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKOEK, HILEROKO MARTXARI JARRAITUTA,** azaroan argazki erakusketa bi antolatutako tabernetan: El Ambigú kafetegian David Rodríguez-en "El clamor del bosque" erakusketak betetzen ditu hormak eta Portalea tabernan, berriz, Patxi Jato argazkilaria lanak egongo dira ikusgai hilaren 30era arte.



## "Juan Luis Ulazia oroitzu" erakusketa

**ORAIN DELA GUTXI LAGA GAI-TUEN JUAN LUIS ULAZIA** mendizalea oroitu nahi du Klub Deportiboak eta Mendi eta Argazkilaritza batzordeek elkarlanean antolatutako erakusketa eskainiko du bere lokaletan hilabete osoan. Erakusketan Ulaziak ateratako argazkiekin batera, bera agertzen direnak ikusi ahal izango dira.

## Bertso-paper lehiaketarako epea ixtear


**ASTELEHENERA ARTE, AZAROAREN 7-RA ARTE JASOKO DITUZTE ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO SAN ANDRES BERTSO-PAPER** lehiaketarako lanak, elkartearen bulegoan bertan (Urkizu, 11 solairuarean). Lehiaketan parte hartzen dutenen artean hiru maila bereiziko dituzte: Eibarko LH-ko ikasleek bertso bat edo kopla bi aurkeztu beharko dituzte, DBH-koek bertso bi edo 4 kopla gutxienez eta 16 urtetik gorakoek (Euskal Herri osora zabaldua) 4 puntu edo gehiagoko 6 bertso gutxienez. Gaia eta doinua libreak izango dira eta bertsoak jatorrizkoak. Sarituek azaroaren 25ean, 22.00-



etan hasita Portalean egingo den San Andres Bertso Jaialdian euren lanak abestuko dituzte eta orduan banatuko zaizkie sariak irabazleei: LH mailan, irabazleak 45 euro eta txapela jasoko ditu eta bigarrenak 40 euro eta plaka; DBH mailakoak 120 euro eta txapela irabaziko ditu eta bigarrenak 100 euro eta plaka; eta helduen mailan nagusitzen denak 300 euro eta txapela eskuratuko ditu eta bigarrenak 250 euro eta plaka. Jaialdirako sarrerak 5 eurotan ipiniko dituzte salgai azaroaren 14tik aurrera Depor, Sagar Bitza eta Kultu tabernetan eta, horrez gain, egunean bertan Portalean bertan sarrera erosteko aukera ere izango da.

## Umeendako antzezkizuna bihar Coliseoan

**ZAPATUAN, 17.00-ETATIK AURRERA MARIE DE JONGH-EN "ROBOT MAITEA" (HUMANOS) UMEENDAKO BEREZIKI** eta familia osoarentzat orohar pentsatutako antzezlana taularatu dute Ana i Punto eta Ana Meabe antzezleak




Coliseoan. Jokin Oregik zuzendutako lanak emakume biren, Florentzia eta Venetia izeneko errobot biren istorioa kontatuko die ikusleei. Gehiegi sakondu barik andra bien bizimoduari begiratu gero, badirudi biak oso zoriontsu bizi direla, gizakiek egiten dituzten gauza guztiak kopia tuta, baina halako batean gauzak okertuko zaizkie, bietako batek huts egiten hastean... hortik aurrera magia eta kolorez betetako ikuskizunarekin ederto gozatzeko aukera izango dute josteran animatzen direnak. Sarrerak 4 euro balio du eta Coliseoko leihatilan bertan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago erosteko aukera izango da.

## Zoramena taula gainean Irisarrirekin

**EGUNEAN, HILAREN 10-EAN "UN LOCO DE DESATAR" ANTZEZLANAREN ESTREINALDIA HARTUKO DU COLISEOAK**, 20.30etatik aurrera. Sardo Irisari aktorearen eskutik ailegatuko zaigun antzezlana Juan Sánchez Vallejo psikiatraren liburu eta batean jasotako testuan oinarrituta dago eta liburuan jasotako antzerkirako egokitzapena Claudio Hochman dramagile argentinarra egina da, lan honetako protagonista den Irisari beraren eta

Rosa Martínez Alcocer muntaiazuzendariaren laguntzarekin. Datorren astean lehenengoz taularatu den antzezlana komikoa tragikoarekin nahasten ditu, unearen arabera bata edo bestea nagusituta. Baina sakonean gizarte-ari egindako kritika dago, hain zuzen ere buruko gaixotasunen bat dutenei gainontzeko herritarrek begiratzeko duten moduaren inguruko salaketa. Antzezlana ikusteko sarrerak 5 eurotan ipiniko dituzte salgai Coliseoan bertan.



Irisarrik Juan Sánchez-Vallejoren sendagilearen lana eszenaratu du.

## laburrak

### SANANDRES JAIETARAKO BILERA

Jaixak Herriak Herrixandako elkarteak deituta, gaur 20.00etan bilera irekia egingo da gaztetxean, "jai euskaldun, parekide, parte-hartzaile eta herrikoiak" izateko egitaraua prestatzeko. Horretan lagundu nahi duen edozeinentzat bilera irekia izango da.

### ARMERIA ESKOLAKO LEHIAKETA

Armeria Eskola sortu zela 100 urte beteko direla-eta, hori iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Irabazlearen lana mendeurrenarekin lotutako ekitaldi guztietan erabiltzeaz gain, lan irabazlearen egileak 4.500 euro jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea abenduaren 12an, 14.00etan amaituko da eta parte hartu nahi dutenek Armeria Eskolan aurkeztu beharko dituzte euren lanak (Isasi, 36) Yaiza López-en izenean. Informazio gehiago nahi duenak 637559678-ra deitu dezake edo, bestela, armeriaeskola@bifashion.com helbidera mezua idatzi.

### BERTSO-SAIOA ERMUAN

Ermuko Euskal Birusa Elkarteak, San Martin kulturalaren barruan bertso saioa antolatu du gaurko, 22.15etan hasita Ermua Antzokian. Gai jartzen Andoni Egañak jardungo du eta bertsoan, berriz, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxeak jardungo dute. San Martin Azoka, bestalde, azaroaren 12an egingo da.

## Sanandresetarako kartel irabazlea

**BARIXAKUAN BILDU ZIREN SANANDRESAK 2011 KARTEL-LEHIAKETAREN EPAI-MAHAIKO KIDEAK**, Joseba Aranzabal, Leire Kareaga eta Soco Baskaran, aurtengo irabazleak aukeratzeko eta hirurek aho batez honako sariak ematea erabaki dute: nagusien mailako lehenengo saria Juan Diego Ingelmo Benavente-rentzat (Burriana, Castellon) izan da, "Behi" izenburuko lanarekin. Hori izango da aurtengo

San Andres jaiak iragartzeko erabiliko duten kartela eta egileak 600 euroko saria jasoko du. Lehiaketako irabazleak aurretik ere hainbat sari eskuratu ditu Espainiako hainbat herri-tako jaien inguruko kartel lehiaketetan (argazkian aurtan Elx-en "Moros y Cristianos" jaietan saria eman dion lanaren aldamenen ikus dezakegu artista).

Horrez gain, 11 eta 14 urte bitartekoan mailako lehen saria

Irati Cobo Ugarteburu (12 urte) izan da, "Azenaroria" izenburuko kartelarekin eta 10 urtetik beherakoan mailan, berriz, 10 urteko Goretti Abascal Larrabe nagusitu da, "Barazkiak gaztau" izenekoarekin.

Udalak antolatutako lehiaketaren azken deialdi honetara aurkeztutako lanak 73 izan dira orotara; helduen mailan 31 lan lehiatu dira, 11-14 urte bitartekoan mailan 18 eta txikiengan mailan, berriz, 24.



## Txina protagonista liburutegian

**AZKEN URTEOTAN EGINDAKOAREN BIDE-TIK, AURTEN ERE TOLERANTZIA ETA KULTUREN ARTEKO INTEGRAZIOA** bultzatzeko asmoz Eusko Jauriaritzak abiarazitako Liburutegiak Topaleku izeneko kanpainarekin bat egin du Juan

San Martin Liburutegiak eta, horren harira, aurtan gure herrian Munduko Paisaiak izeneko kanpainaren ardatza izango den Txinari buruzko erakusketa monografikoa martxan izango das azaroa osoan. Besteak beste irakuketa-gida prestatu dute eta, horrez gain, Txinarekin loturaren bat duten hainbat jardura garatzeko asmoa dutela adierazi dute kanpainako arduradunek. Besteak beste kaligrafia eta papiroflexia lantzeko tailerrak, txotxongiloei eskainitakoak eta baita abakoaren erabilera hobeto ulertzen lagunduko duen beste tailer bat eskainiko dituzte, Txinako ipuin eta kondai-ekin eta adopzioaren inguruko hitzaldiarekin batera.



## Bakailao txapelketa sanandresetan

**UDALAK ANTOLATUTAKO XIX. BAKAILAO TXAPELKETA "SAN ANDRES SARIA" AZAROAREN 27-AN**, 11.30etan hasiko da, Untzagan. Txapelketan parte hartu nahi duten bikoteek azaroaren 2tik 11ra bitartean izango dute izen-emateko aukera, Pegoran. Gehien jota 50 bikote onartuko dituzte eta, azken urteotan egindakoari jarraituz, izena ematen dutenen kopuruak ezarritako gehienezko kopurutik gorakoa bada, aukeraketa zozketa bitartez egingo dute (zozketa udaletxean, pleno aretoan egingo luke, azaroaren 14an, 18.00etan). Txapelketan nagusitzen direnen artean banatuko dituzten sariak, berriz, honakoak dira: lehenengo postuan geratzen direnentzat garaikurra, txapelak, 150 euro eta Alkorta Anaiak, Dinastia de Vivanco eta Soc. Coop. Virgen de la Estrella olioak emandako produktuak; bigarren geratzen direnentzat garaikurra, 90 euro eta Alkorta




Gehien jota 50 bikote onartuko dira txapelketan. / MAIALEN BELAUSTEGI

Anaiak, Dinastia de Vivanco eta Soc. Coop. Virgen de la Estrella olioak emandako produktuak; eta hirugarren geratzen direnentzat 30 euro eta Dinastia de Vivanco eta Soc. Coop. Virgen de la Estrella olioak emandako produktuak.

## Indalezio Ojanguren lehiaketako irudiak ikusgai


**BARIXAKU ARRATSALDEAN ZABALDU ZEN PORTALEKO ARETO NAGUSIAN AURTENGO INDALEZIO OJANGUREN ARGAZKI LEHIAKETAKO** irabazle lanekin zein aukeratzeko beste batzuekin osatutako argazki erakusketa. Inaugurazio-ekitaldian bertan, Indalezio Ojanguren XXIV. Argazki Lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkieten. Azaroaren 20ra arte ikusgai izango den erakusketa ohiko ordutegian zabalduko dute, martitzenetik domekara 18.30etatik




20.30etara. Estatu mailako argazkilari onenetakoak erakartzen duen lehiaketaren azken edizioan saria eraman dutenak Xavier Ferrer (Castellón), Jose Vila Airas (Eibar), Juan Ramón Llavori (Zumai), Miquel Planells (Banyoles), Javier P. Fernández (Berango), Juan Antonio Palacios (Eibar), José Luis Irigoien (Eibar), José Manuel Lucena (Ermua), Mirren Bakarne Elejalde (Eibar), Virginia Arakistain (Eibar), Pedro M<sup>a</sup> Arriola (Eibar) eta Unai Mora gaztea izan dira.

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, IRATI Zarrua Cid, gaur bost urte betetzen dozu-eta. Etxeko guztien partez. Jarraitu hain zintzo eta alai.



Zorionak, JON, hillaren 2xan hamar urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partetik.




Zorionak, MALEN, domekan bederatzirte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat amatxo, aitaxo eta Asierren partez.




Zorionak, ARIANE! Gure printzesak bixar bi urte beteko dittu-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.




Zorionak, LUKA! Zelako potxolua eta barregarria zaran! Holako anaixa nahi giñuan! Pa. Koko eta Sorgintxo.



Zorionak, MARTIN, domekan bi urte egingo dozuzelako. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, LOREA Penedo, astelehenian lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi-haundixa Jonen eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, TXOMIN, astelehenian 19 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez eta ondo pasa.

## HILDAKOAK

- Ramoni San Ildefonso Bengoa. 88 urte. 2011-X-30.
- Maria Garate Urzelai. 88 urte. 2011-X-31.
- Josefa Molina Póveda. 66 urte. 2011-XI-2.

## JAIOTAKOAK

- Sergio Mario Tabares Dos Santos. 2011-X-24.
- Leire Larrañaga Arrate. 2011-X-24.
- Lucia Cenzual Agirre. 2011-X-25.
- Laia Azkuenaga Rodríguez. 2011-X-27.

## zinea Coliseoan



**"Tiburón 2D. La presa"**  
Zuzendaria: David Ellis  
Aktoreak: Sara Paxton, Dustin Milligan, Katharine McPhee, Donal Logue

**4an: 22.30**  
**5ean: 17.00, 19.45, 22.30**  
**6an: 20.00**  
**7an: 20.30**



**"Las aventuras de Tintín"**  
Zuzendaria: Steven Spielberg  
Aktoreak: Jamie Bell, Andy Serkis, Daniel Craig, Nick Frost

**6an: 17.00**



**"Cómo acabar con tu jefe"**  
Zuzendaria: Seth Gordon  
Aktoreak: Jennifer Aniston, Jason Bateman, Colin Farrell, Kevin Spacey

**4an: 22.30**  
**5ean: 19.45, 22.30**  
**6an: 20.00**  
**7an: 20.30**



**"Sin salida. Abduction"**  
Zuzendaria: John Singleton  
Aktoreak: Taylor Lautner, Lily Colins, Alfred Molina, Jason Isaacs

**5ean: 19.45, 22.30**  
**6an: 17.00, 20.00**  
**7an: 20.30**



**"Katu bat Parisen"**  
Zuzendaria: Jean-Loup Felicioli  
Pertsonaiak: Dino katua, Zoé, Victor Costa, Nico

**5ean: 17.00**  
**6an: 17.00**

## horoskopoa

**ARIES**

Korrika eta presaka ibiliko zara datorren astean; baina, hala ere, berandu iritsiko zara beti. Zergatik ez duzu agenda hobeto antolatzen?

**TAURUS**

Zorteko zabilta eta, inguruan denetarik ikusi arren, ez zaizu ezer txarrik gertatuko datozen egunotan. Badakizu arazoa eta ihes egiten!

**GEMINI**

Hagineko minak ez zaitu bakean lagako. Hobe duzu lehenbailehen dentistarengana joatea, bestela arazoa okertu egingo da-eta.

**CANCER**

Gorputza astintzeko gogoia izango duzu asteburuan. Egunerokoak albo batera laga eta, une batez, juerga pixka bat egiteko gogoz ibiliko zara.

**LEO**

Hoztuta pasako duzu hurrengo astea: birus bat inkubatzeko zaudela ematen du. Zaindu zaitez ahal duzun gehien, beste inor ez da arduratuko-eta.

**VIRGO**

Zure barruan luzaroan geratuko den pelikula ikusiko duzu. Pentsarazteko filma izango da, baina gogoratu fikzioa dela: ez dago besterik.

**LIBRA**

Aspaldiko argazkiak begiratzen zerbait harrigarria aurkituko duzu. Sasoi haiek gogoratuz, negar malko batzuk botatzeko balioko dizu.

**SCORPIUS**

Une batez inguruan daukazunetik kanpo jarri eta buruan dituzun kontu horiek konpontzen saiatu. Gutxienez, ordenean ipintzen.

**SAGITTARIUS**

Zuk egindako kalkuluak gaizki irtenko dira eta azken momentuan inprobisatu beharrean egongo zara. Ea azkar zabilta horren bueltan!

**CAPRICORNUS**

Astean zehar iritetzen zaizkizun arazoaren konponbideak aurkitzen jakingo duzu. Argi ibiliko zara edozer gauzaren aurrean.

**AQUARIUS**

Balantzan albo onak eta txarrak ipini ondoren, erabakia hartu. Ez eman aurrerapausorik hori aztertu gabe: txarrerako izango da.

**PISCIS**

Eguraldi onarekin egin ez duzun kirol guztia nahi duzu egin eguraldi txarrekin? Zure erabakia da, baina katarroa hartzen baduzu...

**Barixakua 4****SANANDRESAK PRESTATZEN**

**20.00.-** Sanandres jaierarako egitarau euskaldun, parekide eta parte-hartzailea prestatzeko bilera irekia, Jaixak Herrixak Herrixandako elkarteak deituta. Gaztetxean.

**MAGIA IKUSKIZUNA**

**20.30.-** Anthony Blake magoaren "Más cerca" ikuskizuna. Sarrera: 15 euro. Coliseoan.

**MARIDAJEA**

**21.30.-** Krabelin jatetxeko maridaje jardunaldia, Linel Vignerone enologoaren eskutik. Krabelinen (autobusa 21.00etan irten) irtena da Ego Gainetik).

**Zapatua 5****AZOKA-MUSUTRUK**

**12.00.-** Azoka-musutruk, Eibarko Gazte Asanbladaren eskutik. Etxean soberan duzun edozer eraman eta azokan dagoenetik nahi duzuna hartu, ezer ordaindu barik. Urkizun.

**ANTZERKIA**

**17.00.-** "Robot Maitea", Marie de Jongh-en lanaren antzezkiuna, umeentzat. Sarrera: 4 euro. Coliseoan.

**Domeka 6****IBAI LAGUN**

**10.00.-** Eibar, Mallabia eta Soroluzen ibaia garbitzeko lan-saioa, Debegesaren eskutik.

**KONTZERTUA**

**12.30.-** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

**Astehena 7****SENDABELARREN FOROA**

**16.00.-** Sendabelarren Foroaren estramoniari buruzko saioa. Portalean.

**Martitzena 8****IKASTEN**

**08.10.-** Bilboko Arte Ederretako Museora bisita gidatua, Antonio López-en lanak ikusteko. Ardantzako tren-geltokitik (08.13etan Estaziñotik).

**Eguaztena 9****IKASTEN**

**11.00.-** Kafe-solasaldia, 15-M Suminduen Mugimenduen inguruan. Untzagako jubilatuen etxean.

**Eguena 10****EGOIBAR ZINEKLUBA**

**17.30 eta 21.00.-** "El viaje del director de recursos humanos" (Zuz: Eran Riklis). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

**ODOLA-ATERATZEA**

**18.30.-** Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa, elkartearen egoitzan (Pagaegi, 3 behean).

**MODA IKASTAROA**

**18.30.-** "Modaren sekretuak: tendentziak eta aholkuak" ikastaroa, Ana Goitiaren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartera).

**GURE BALIOAK**

**19.00.-** Gure Balioak sari-banaketa ekitaldia. Ermuko Lobiano jauregian.

**KALEETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-erako entsegua, S. Andres elizako lokaletan.

**BAKAILAO LEHIAKETA**

**20.00.-** Hilaren 13an jokatu den Eskolarteko VIII. Bakailao Lehiaketarako izena ematen dutenekin bilera, bakailaoa banatzeko eta nola prestatu azaltzeko. Untzagako jubilatuen etxean

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "Un loco de desatar" antzezlanaren estreinaldia, Sardo Irisarriren eskutik. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

**lehiaketak****– San Andres Bertso-Paper Lehiaketa.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: Azaroaren 7ra arte, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartera).

**– Gaztelekurako Logotipo Lehiaketa.**

Norentzat: 12-17 urte bitartekoentzat. Bete-beharrekoak: Indianokua gaztelekua agertzea. Lanak entregatu / informazioa: Azaroaren 20a baino lehen, Indianokua gaztelekuan (Muzategi, 3).

**– XIX. Bakailao Txapelketa "San Andres Saria".**

Noiz eta non: Azaroak 27, 11.30etan Untzagan. Izen-ematea eta informazioa: Azaroak 14ra arte (14.00etan itxiko da epea), Pegoran.

**diru-laguntzak****– Umeak Eskolara 2011 eta Dirulaguntzak Ikasleei 2011.**

Eskaerak aurkezteko epea: Abenduaren 1era arte, Pegoran.





## erakusketak

- Azaroaren 6ra arte  
**ESTEBAN OROZ** en pintura erakusketa. *Topalekuan.*
- Azaroaren 16ra arte  
**JUAN ANTONIO PALACIOS** en "Kostaldea" argazki erakusketa. Debako turismo bulegoan (*Ifar kalea, 4an, Deba*).
- Azaroaren 18ra arte  
**JOSE LUIS IRIGOIEN** en "Jordania" argazki erakusketa. *Doherty's tabernan (San Prudentzio, 6an, Matienan).*
- Azaroaren 20ra arte  
**INDALECIO OJANGUREN XXIV. ARGAZKI LEHIAKETA**-n saritutako eta aukeratutako beste lan batzuen argazki erakusketa. *Portalean.*  
**"EGIPTO. BEGIRADA ERROMANTIKOA"**, besteak beste Santi Entrena eibartarraren bildumako piezen erakusketa. Sarrera doan. *Irungo Oiasso Museoan (Irun).*
- Azaroaren 23ra arte  
**"MEDUELELAVIDA" RUBEN** en erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*
- Azaroaren 30era arte  
**DAVID RODRIGUEZ** en "El clamor del bosque" argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*  
**PATXI JATO** en argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*  
**MUNDUKO PAISIAK**, Txinari eskaintako erakusketa. *Juan San Martin Liburutegian.*  
**FERRARI TESTAROSSA** automobila ikusgai. *El Corte Inglés-ean (beheko solairuko sarreran, gizonetzkoen departamentuaren aldamenean).*

## farmaziak

- 4, barixakua**  
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- 5, zapatua**  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 6, domeka**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- 7, astelehena**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 8, martitzena**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 9, eguaztena**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 10, eguena**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- 11, barixakua**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.


## tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## SUDOKUA

5	8			2	4		1
		6					5
3			5	8			2
4					5		
		9		1	2		
		8					4
	9			5	8		3
7					8		
8		5	1			4	9

## DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Soraluzen bost urte dituen apartamentua salgai. Logela bat, jangela, sukaldea eta komuna. Igoailua. 145.000 euro, negoziagarriak. Tel. 687-537575.

– Jardinetak kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kafekazio zentrala. Eguzkitua eta bizitzera sartzeko moduan. Etxe osoan musika entzuteko aukera. Internet banda zabala. Tel. 688-873807.

– Untzaga inguruan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Terraza txiki bi. Oso eguzkitua. Igoailua. Tel. 615-744460.

– Etxebizitza salgai Eibarko erdi aldean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Igoailua. Guztiz berriak eta argitsuak. 126 m<sup>2</sup>. Tel. 626-203838.

– Eibarren pisua salgai. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea, komun bi, garajea eta trasteroa. Eraiki berria eta jantzita. Saltzeko presa dago. Tel. 618-400241 eta 648-848581.

### 1.2. Errentan

– Asola-Igartzan babes ofizialeko atikoa alokagai denboraldi batean kanpoan lan egin behar dudalako. Inklinoaren soldataren arabera prezioa (186-426 euro artean). Garajearekin. Berria, estrenatzeko.

– Pisua hartuko nuke alokairuan konpartitzeko. Tel. 688-819475.

– Familiak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 669-966611.

– Etxebizitza alokagai Ermuan. Logela bi. Igoailua. Prezio onean. Tel. 661-653160.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 649-313548 eta 943-201933.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala edo garajea behar dut altzariak gordetzeko. 70 euro ordaintzeko prest hilerro. Tel. 678-641500.

– Ipuruako Eroskin garaje berria alokagai. Itxia eta 21 m<sup>2</sup>-koa. Tel. 652-764566.

– Asua-Errekan garajea alokagai. Itxia. Tel. 616-959625.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Goizez deitu. Tel. 943-208529 eta 606-110693.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 665-301550.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-847947.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarero jarduteko, zaintzaile moduan, pintore lanak egiteko etabar. Tel. 615-720384.

– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako, haurrak edo nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzeko eta kamarero jarduteko. Tel. 609-148861.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta haurrak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-474923.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan edo igeltero lanetarako. Tel. 692-332871.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 650-386345.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko jornada erdiz. Tel. 680-973549.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko arratsaldean. Tel. 634-661438.

– Gizonetako eskaintzen da kamarero jarduteko. Tel. 658-371925.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 638-047847.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita orduka ere. Tel. 689-243694.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 669-688755.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 695-303237.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 650-152866.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 655-384877.

– Neska eskaintzen da ileapaintzaile jarduteko etxerik-etxe. Prezio onean. Esperientzia. Tel. 662-204193.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 659-037882.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 648-603029.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Disponibilitate osoa. Tel. 647-184785.

– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 629-889465 eta 943-127400.

– Neska eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko eta garbiketarako egunez egiteko. Tel. 651-836353.

– Neska eskaintzen da tabernan lan egiteko (esperientzia) edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-972733.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.

– Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informak. Tel. 637-276278.

### 4.2. Langile bila

– Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 687-046382.

– Kamareroa/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 665-718396.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Ingeniari kimikoa eskaintzen da klase partikularrik emateko: LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Gurgildun aukia salgai, etxean erabiltzeko (estuak). Gehigarriekin. Prezio onean. Tel. 943-120308.

– Arropa-lehorgailua salgai. Balay markakoa. 50x65x44. 200 euro. Tel. 626-144098.

### 6.4. Bestelakoak

– Gaztetxeko sukaldariko materiala behar da. Altzariak ere bai. Tel. 635-191352.

# ONDO ENTZUTEN DUZU?

Natural Optics PLAZAOLA-n irtenbidea aurkituko diegu zure entzumen arazoei

Audifonoen egokitzapena eta entzumen-azterketak  
Zaratari eta urari aurre egiteko molde eta tapoiak  
Bakoitzari egokitutako jarraipen eta arreta

Errebal, 14 20600 Eibar GIPUZKOA 943 202 137 plazaola@naturaloptics.com

> **klinika kortazar**      **Gidabaimenak eta armabaimenak**



## TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu



**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hartz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75